

# BENGALA JEIKI HADI! Yugoslavia Austria - Hungria - ren bidetik?

Une honetan, bengalatarrok, nehor ez da zuetas oroitzen. Zuen egarrik libratzearen ekin zenioten lanari gogor, halaberharrez, borrokari ere bai. Baina, beste zenbait herrialdetan gertatua berrituz, txikia eta argala izan da arrazoien indarra.

Pakistan omen, zuen ama, eta kapitalismoa zuen aita. Blok, elkarturik, haur dohakabea sorerazi digute. Zuek bengalatarrok ez duzue horrelako familiarik nahi, izan ere zuen suertea ez da sasikumearena baino hobea izan...

Lurralde ez zera handi, 142.000 mila kilometro baino ez dituzu. Jendetza eta txirotasunez ondo horniturik zaude. Sarritan geure buaruari egin ohi diogun galdera hauze duzue: "Nork egin du gaur eguneko mapa politikoa?". Estatu baten barruan nazio anitz aurkitu ohi da askotan. Bestetan, berriz, herriak estadutan zatituak... Eta zuen kontua argi eta garbi dagoela aitortu behar dugu. Izan ere, ia bi mila kilometroren arte dago mendebaldeko zuen "anaien" eta Bengala-aren artean. Tartean, berriz, India estada, hau ere zuen etsaia...

Jakin dudanez hizkuntzak ere erabat bereizten zaitue, bengali bait da zuena; beste, mendebalekoa, ofizialki ezarri nahi dizuen urdu mintzaira. Esan dugunez, India tartean delarik, zuen arteko harremanak oso eskasak eta eragozpenez beterikoak dituzue. Ez duzue itsasoz ibili beste erremediork...

Zuen agintearen jabe ez zeraten geraz, ekonomia ere delako "gurasok" nahi duten eran banatzen da. Bengalatarrok, nekazaritzari bete-betean lotuak, ez duzue industrializatzearen aurrerapenik ezagutzen. Pakistanen industria apurra beste aldean dago, zuek ez zerate horretarako gai nubbait...

Behi esnesu zerate dirudienez. Nekazaritza arloan, mendebalean arzoa erretzen dute eta zuen lurraldean, berriz, ituea. Atzeritik inguruzten duten dibisa dirutzaren erdia, gutxienez, zuen izerdiz lortutako da. Zoritzarrez, aberuari ematen zaion pentsurik ere ez da zuegana iristen... Jakin ere badakigu, itueak askoz irabazibide handiagoak eman-gotuzkeela bertan dagoen industria martxan jarri geraz. Agintzen daukazutenek besterik pentsatzen dute nubbait...

Errekan pauso motela eta baldarra ematen du. Zuek ez duzue ez zangorik ez makulurik, gutzia kendu zaitue. Hazikera ritmoari begiraten badiogu ekonomiaren baitan mendebalekoek % 6,9 aurreratzen badira, zuek ez zerate % eko hirura iristen. Horregatik, zuen arteko tartea egunetik egunera handitzen dijoakizue.

Une honetan, ito zorian dagoenaren galdera: "Zer egin". Herria salbatzari ekin. Horretarako zuen egoeraren kontzientzia gehiago zabaldu da. Mugimendua ere martxan jarri duzue, egunetik egunera indar hartzen jitoan... Gobernuak ez dizue ezertxo ere barkatu. Borrokari ekin diotuzten bezain laster egurrak gogor astindu zaitue, zigorkadaren garratza sufritu duzue. Han eta hemen, egunkariak orriak betetzaren, bederik, Bengalataz mintzo ziren... Orain ez da gertatuz nehor oroitzen...

Estadu kapitalistek ez dute lo handirik galdtu zuen arazoa dela ta. Zertarako zuetaz arduratu hain pobre bazerate eta irabazbiderik ez badago?

Sozialistek ere ez dizue asko lagundu. Txinak ez du bere maila eta itzala galdtu nahi. Bakoitza bereari bakarrik begiratzen dio. Muga "erespetagarri" horien barruan bakoitza gogoak ematen diona egiteko eskubide osoa dauka nubbait...

Bengala, txiro eta apal... etsaien aurka borrokatzeko gaiso eta argal... Eta aurrerantzean? Gerora oso bakarrik aurkituko zerate. Zuen baratzarrik bestek ez dizue jorratuko... belar gaiztoaren hazia erein baizik...

Gure aldetik zer? Itsuak itsuari eskain lezaiokeen laguntza ezin izan... Baina, arren Bengala jeiki hadi...

Mikel Ugalde

**Ez Merkenak**

**Bai Onenak!**

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear da baserritar burutuak, Berbiziko aragi pilak; gafiara oene putzuak, Oieak guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

**FANDERIA**

**ERRETERI**

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GIPUZCOA

75 ANIVERSARIO

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak, 75 urte betetzean, orain arte bezala, gure Probintziaren alde lan egiten jarraituko duala adierazten die Gipuzkoar guztiei.

"Tout se passe comme si l'heure de vérité allait sonner bientôt pour la Yougoslavie". Honelaxe hasi du bere azken artikulua komunista erresumen ezagutzaile bikaina den F. Fejto jaunak: denak adierazten duenez, egieren garai heldu zaio Yugoslabiari. («Le Monde Diplomatique», 1971-ko Ekaineko alean).

Yugoslabiaren politikabidea guretzako ezin interesgarriago izanik, on izango da hemen Fejto-ren artikularen laburtzapen bat ematea.

Z. ARGIA-ko orri hauefantez alpatu genuen, orain dela hilabete batzuk, Kossovo-ren egoera, Kossovo «eskualde autonomoa» da legez. Eta jendetza «Iparaldeko Albania» da, Yugoslabiako Federazioan bizi diren albaniarren probintzia hain zuzen. Orduan azaldu genuenez, albaniar abertzaleak eta Hegoaldeko herrikideekin elkartu nahiak gertakari gogorak ekarri dituzte Kossovo-ra.

Fejto-k azaltzen duenez, ordea, ez dago Yugoslabiaren albaniar horien arazoa bakarrik. Ez, Yugoslabiaren barneko nazio-tiribirik nubbait doaz gora; eta ekonomi-gorabehera erantsi zaizkie etniako liferentziak, problemak gero eta zailago eginez. Autojesteioaren gehiegikeria batzuek, esate baterako, aberastu egin ditu Slovenia eta Kroazia; eta beste errepublikak atzeratu. Kossovo-n diru-etekina bikoiztu den artean (azkeneko hamar urteotan), Kroazian eta beste batzutan hirukoiztu egin da gutxienez.

Nazio desberdin batzuek osatutako erresuma bat da Yugoslabiak: sei errepublika eta bi eskualde autonomo gaur arte. Belgrado, beraz, hiriburu federala da, denena alegia. Baina, dagoen lakuan dagoelako, serbiatarren hiri nagusia ere ba da. Yugoslabiako hiriburuak, horretara, serbiatar kolorea eman dio Federazioko buruzkariari; eta hau gaizki ikusi dute serbiatarrek ez beste guzkie.

Nazioen abintzasun hori, eta autojesteioaren helburuak kontutan eta gidari hartuz, Tito-k autojesteioa erabil-arazi du nazioetasunaren mailan ere; eta sei Errepublikak beren buruz gobernatzera. Teorian eta legeen letran bederen.

Praktikan, ordea, esan dugunez, serbiatarrek nagusitu dira Federazioren apartaon: funtzionarioen %eko 73,6 serbiatarrek dira, nahiz jendetza Yugoslabiako %42 besterik ez izan. Eta komunismo klasi-koaren «zentralismo demokratiko» delakoa zerbitzatu nahiz, «erdirakaria» horrek serbiatarrek jarri ditu nagusi, eta gainerakoak bigarren mailako herri.

Arriskua ikusi du Tito-k; eta 1966-an autojesteioa egiazkotu eta herri guzien berdintasuna mamitu nahirik, erdirakaria edo zentralismoa haustea erabaki zuen. Aurrera joateko, bestalde, ez zuen beste erremediork izan. «Zentralismo» horren bultzatzailea zen Rankovitch-ekin eten zuen; Slovenia-k, Kroazia-k eta Mazedonia-k argi-eta-garbi adierazi bait zituen orduan Tito-ri Yugoslabiak ez zela berentzako hizi juridiko bat baizik, eta ez Aberri bat. Eta hiru Errepublika horiek, Kardelj sloveniarraren ahoz, Yugoslabiatik BEREZIKO zirela esan zioten gordinki.

Yugoslabiak ez da inoiz NAZIO bat izan, nazio askotako ERRESUMA bat baizik. Titok gogoan hartu izan du; eta Suiza-ren parekotzat hizi izan da Yugoslabiak etnia-arazoetan.

Zer gertatu da, beraz, Yugoslabiako batasuna federala bera ere kinka gaistoa ager dedin; eta britaindar kondairagile batek gaurko Yugoslabiak eta 1918-ko Austria-Hungria aldera ditzen? Erantzuna gauza nabarmena da: nazio-nahia Yugoslabiako nazioek gero eta biziago ea sakonago dutelako; eta Belgrado-ren jauntxeria (ez dezagun gero ia inperialismo mendreneri ere!) gero eta nekezago jasaten dutelako. Berdintasun OSOA nahi dute Yugoslabiaren barneko nazio guzietan, eta ez lortzekoan, Yugoslabiatik ATERA egin nahi dute.

Aspaldidanik esaten da Belgikan: «En Belgique il n'y a pas de Belges; il y a des Flamands et des Wallons». Eta gauza bera esan liteke gaurko Yugoslabiak: «Yugoslabiaren ez dago yugoslabiatarrik: ser-



biatarrek, kroaziarrak, montenegro-tarrak, eta abar daude soilki». Lehengo bezala ere kroaziarrak dira gogorrenak serbiatar inperialismoaren kontrako burruka horretan. Kroaziarrak katoliko dira, eta serbiatarrek ortodoko. Hizkuntza ania bixikiak dira bi herriak; baina idazkeraz ez: serbiatarrek alfabeto zirilikoz idazten dute, kroaziarrak latinoaz.

1954-an tratu bat egin zuten bi herrietako idazleek; eta, alfabetoaz gainera, hizkuntza «bakar bat» hautatu zuten. Hots 1967-an kroaziarrak komunistek hautsi egin zuten elkarpede hura eta, erabili dena serbiera hutsa zela salatuz, kroazieraz hasi dira idazten.

Beste ezagugarri bat. Bakarrik federalista, oso epela zen bere eskabideetan eta kroaziarrak abertzaletasunaren defentsan, eta gaitundia eta baztertua izan da. Miko Tripalok, aldir, kroaziarrak abertzale purrakatu, gogor jokatu du Belgradon Kroazia-ren eskubideen alde, eta Kroazia-ko Komunista Alderdiaren laguntza osoa lortu du. Are gehiago: gora doa.

Azken etsenplu bat. Zagreb-ko Kroaziarrak lasleen Biltzar Nagusia, gaur arte «gauchiste»-k eta ezkerkoiek kontrolatua, «separatista» delakoen eskutara pasa da joan den Maiatzaren 12-an; eta botoen %100-ekin hau onartu du: «Souveraineté d'Etat complète pour la Croatie»; alegia, Erresuma-askatasun osoa Kroaziarentzako.

Horiek ikusita, batzuek «ustaxi» Hitler-zaleen oroitzapen itusua haitzaten dute, nola ez! (Breitana- edo Flandes-en bezala), kroaziarrak mugimendua «integrista», «nazi», «vaticanista», eta abar, sorkarizat

har eraztekotan. Baina alferrik ari dira horretan. Ezten gaurko kroaziarrak komunista abertzaleek URSS-en laguntza ez bait dute teorlan baztertzen Belgrado-ren inperialismo-tik askatzeko!

Hitz batez: Yugoslabiako nazioek, 1971-an inoiz baino zinklago, Aberri-askatasuna nahi dute; eta Yugoslabiak «batuan» eta «hilezkor-rean» ez dute batera sinisten.

Marx-en ustez, «berez desegingo da Erresuma» sozialismo-ko bidean. Eta Yugoslabiaren gertatzen ari dena horretara «normal-tzat jo daiteke: Partidua eta Erresuma desagiten ari bait dira. Hain zuzen, horixe da teoriaren araberrakoa, eta ez stalinismoa eta burokrazia berrira. Baina Yugoslabiaren gertatzen ari dena ez da gertatzen Marx-ek iragarri zuen bidetik, ABERTZALE-TASUNEN PIZKUNDETIK BAIZIK.

Oso inportantea da, beraz, eta alde askotatik, egun hauean Parla-mentoak hartu behar duen erabakia. Belgrado-ko Gobernu Federala ezin daieke harago joan Yugoslabiaren izatea bera ukatu gabe. Hauke da, borradore gisa, Brioni-ko bilkuretan presatu den definizioa: «Beren buruz eta aldeez bildutako nazio-eltarte bat da Yugoslabiak... Federazioko Erresuma bakoitza bi oinarri hartzen ditu: herriaren beregintasuna, eta langile-klasearen eta langile guzien autojesteioa». Laister jakingo dugu onartua izan denetz.

Ez ditu sozialismoak, beraz, Yugoslabiako nazioen abertzaletasunak hiri eta «gairiditu»; sustraitu, sendotu eta azkartu baizik. Hau da to bat da.

LARRSORO

**JOSE ZINKUNEGI' BEN**

**OPTICA BERRIA DONOSTIA**

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALBUNAK

HERNANI, 4 DONOSTIA

**TRANSPORTES azkar**

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donostia'tik egunero:

Iruña, Bilbao, Gasteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean Iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo-ra.

Carretera Graf. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA

Telefonokoak: 450313 eta 459723

Apto. 1381